

Orain dela bi mende pasatxo, 1812ko martxoaren 19an, Espainian parlamentu batek onartutako lehen lege funtsezkoa aldarrikatu zuten Cadizeko Gorteen. Lege horrek, konstituzio modernoan ildotik, batik bat Frantziakoari jarraikiz, honakoa dio hitzez hitz 13. artikuluan (I. titulua, 3. kapitulua): «Gobernuaren xedea da herritaren zorientasuna, gizarte politiko orok beste helbururik ez baitu; gizabanakoen ongizatea». Aipatu adibideak argi eta garbi islatzen du sistema demokratiko modernoan gobernuak politika jakin batzuk hautatzeko arrazoi nagusia dela herritarren «ongizatea» hobetzea.

Hori horrela, funtsezkoa da herritarren ongizateaz ari garenean zertaz ari garen jakitea, eta ongizate-maila zer-nola neur dezakegun jakitea. Argi samar dago ongizatea kontzeptu dimentsioaniztuna dela, hala nola konplexua, zehaztugabea batzuetan, eta makina bat faktore indibidual eta sozialen mendekoa. Analisisetako ez gutxik zuzenean aztertzen du alderdi hori ongizate subjektiboari («zorientasun» esan geniezaiokeen horri) buruzko inkestetan oinarrituta, eta bizitzarekin pozik egotea baldintzatzen duten faktoreak aztertzen dituen psikologiaren arlo horretan egindako aurrerapenen bidez garatu da (Diener, 1984). Ikuspegi oso interesgarria da, baina inguruabar sozialen eta gizarte bakoitzeko gizabanako bakoitzaren itxaropen partikularren oso mendekoak dira emaitzak; beraz, zaila da gizartearen arteko konparazioak egitea, are denboran zehar gizarte berean konparazioak egitea ere.

Arazo horiek ekiditeko, eta politika publikoei lehenetsi beharreko ongizate-dimentsioen gaineko gidalerroak ematearren, analisi gehienek zeharka neurtzen dute ongizatea, ondo bizitzeko beharrezko dena identifikatu nahian; hala, gizarte bakoitzak gizabanakoei bizitza betea garatu ahal izateko aukerak zer-nola eskaintzen dizkien aztertzen da, aipatu premia gako horiek aintzat hartuta. Horri buruzko lehen proposamenak izan ziren Gizarte Ongizatearen Neurri diruzkoa (*Measure of Economic Welfare*; Nordhaus eta Tobin, 1972) eta Morrisen dimentsioaniztunak (1978, 1979). Txiroenetan ardaztuta zeuden eta diruzko adierazleekin uztartzen zituzten, besteak beste, alfabetatzeari, haur-hilkortasunari eta bizi-itxaropenari buruzkoak, Bizitza Fisikoaren Kalitatearen indizea taxutuz (*Physical Quality of Life Index*). Indize horrekin, txiroenek hazkunde ekonomikotik zer onura lortzen zuten neurtu nahi zen.

1990ean, Nazio Batuen Erakundeak Giza Garapenari buruzko lehen txostena egin zuen (UNDP, 1990), eta per capita barne-produktu gordinaren balioaz gain, beste bi dimentsio gako proposatu zituen herrialdeen ongizatea eta garapena neurtzeko; osasuna eta hezkuntza. Hala, hiru dimentsioko adierazle bat eraikitzen du herrialdeen garapena neurtu eta konparatzeko, giza garapenaren indizea, nazioartean onarpen zabala izan duena ordutik hona. Nahiz eta eztaba daezina izan ongizatea zehazteko dimentsio objektibo garrantzitsuenetako bat diru-sarrerren maila dela, ongi bizitzeko helburu nagusia zati handi batean betetzeko bitartekoa den aldetik, funtsezkoa da, orobat, diru-sarrerren banaketa gizartean; izan ere, herritar batek ingurune hurbileneko batez besteko gizabanakoaren diru-sarrerren maila antzekoa izateko probabilitatea adierazten du. Bigarren aldagai horri ez ikusi egin zaio luzaz gizarte-ongizatea neurtzeko proposamenetan.

Batera zein bestera, azken bi hamarkadatan hainbat ekimen agertu dira gizarte-ongizatearen neurketa hobetzeko, oinarritzat hartuta giza garapenaren indizeak dabilena baino ikuspegi dimentsioaniztunago bat. Adibidez, mende honen hasieran, Osberg eta Sharperen ongizate ekonomikoaren indizea (2002). Beste proposamen askok ere ongizatearen neurketan bestelako faktore objektibo nahiz subjektiboak sartu ala ez aztertu dute; esaterako, Bhutango ekimen aitzindaria. Herrialde horrek pasa den mendeko 70eko hamarkadan jada bere egin zuen «barne-zoriontasun gordina» kontzeptua, herrialdearen garapenaren eta ongizatearen adierazle gisa. Bizimailaz, osasunaz eta hezkuntzaz gain, giza garapenari buruzko beste sei dimentsio hartzen ditu barnean: gobernu-funtzionamendu ona, denboraren erabilera, komunitatearen bizitasuna, kultura, ingurumen-aniztasuna eta ongizate psikologikoa.

Modu bertsuan, ELGak 2004an egin zuen bere lehen ekimena; Garapenaren Neurketa (*Measurement of Progress*). Gaur egun Ongizatearen eta Garapenaren Neurketa (*Measuring Well-being and Progress*, <https://www.oecd.org/wise/measuring-well-being-and-progress.htm>) esaten zaio, eta ELGaren arabera, helburu hau du: «Gizartearen garapena neurtzea, sistema ekonomikoaren funtzionamenduari bezala, herritarren esperientzia askotarikoei eta bizi-baldintzei ere erreparatuta». Horretarako, diru-sarrez (eta aberastasunaz), osasunaz eta hezkuntzaz gain, enpleguaren kalitatea, etxebizitza, ingurumena, segurtasuna, bizitza/lana oreka, gizarte-harremanak eta gizarte-konpromisoa ere kontuan hartzen ditu.

Europar Batasunak (EB) ere «BPGd-az harago» ekimena jarri zuen abian XXI. mendearen lehen hamarkadan, eta Frantziako gobernuak gaiari buruzko txosten bat eskatu zien 2009an arlo horretako hiru akademiko adituri: Joseph E. Stiglitz, Amartya Sen eta Jean Paul Fitoussi. *Report by the Commission on the Measurement of Economic Performance and Social Progress* txostena ondu zuten. Txostenaren ondorio nagusietako bat da barne-produktu gordinak ez duela ondo neurtzen ondasun pribatuen kalitatea, ez eta sektore publikoko jarduera gakoaren (hezkuntza, osasuna, justizia, segurtasuna, etab.) balioa ere. Batzordeak, halaber, ondorioztatu zuen bizi-kalitatea baldintza objektibo eta subjektiboen mende dagoela; beraz, ongizatearen

adierazleek osasuneko, hezkuntzako, norbere jardueretarako eta ingurumen-baldintzen gaineko neurketak hobetu beharko lituzkete, gizarte-harremanak, adierazpen politikorako gaitasuna eta segurtasunik eza ere kontuan hartuta, lotura estua baitute bizitza betearekin. Azkenik, ongizatearen neurketan, errentaren eta aberastasunaren banaketa eta herritarren kontsumoa ere kontuan hartzeko gomendioa egiten zuen, eta merkatuz kanpoko jarduerak sartzeko. Horrek inkesta onak egiteko bide eman-go luke, eta bizi-kalitatearen egiazko indize metatuak lortzeko, ingurumen-jasangarritasuneko adierazleak ere barne hartuta.

Duela gutxi, Nazio Batuek, 190 herrialde ados jarri dira garapen jasangarrirako 17. helbururen inguruan, 2030era begira (<https://www.undp.org/es/sustainable-development-goals>). Helburuon artean daude pobrezia desagerraraztea eta desberdintasunak txikiagotzea, klimaren alde jardutea, lurreko ekosistemak zaintzea eta ekoizpen nahiz kontsumo arduratsua.

Herrialde aberats eta garatuenei dagokienez, ELGak «Bizitza hobea» (*Better Life*, <https://www.oecdbetterlifeindex.org>) ekimena jarri zuen abian 2011n, arlo hauetako adierazleekin: errenta, osasuna, hezkuntza, etxebizitza, enplegua, komunitatea, ingurumena, gizarte-konpromisoa, segurtasuna, bizitza eta lana kontziliatzea eta bizi-tzarrekiko poztasuna. Gaur egun, EBk, Eurostat, Batasunaren estatistika-bulegoaren bitartez, adierazle sorta bat eskaintzen du, «Bizi-kalitatearen adierazleak» (*Quality of life indicators*). Sorta horrek ELGak proposatutakoen antzeko dimentsioak barne hartzen ditu, hala nola banaketari buruzkoak, errenta-gabetasunaren dimentsioarekin (pobrezia), eta herrialde aberatsetako herritarrentzako alderdi gehigarri garrantzitsuei buruzkoak, tartean, denboraren erabilera eta garraio-azpiegituren kalitatea.

Monografiko honetan hamaika lan bildu dira –bederatzi artikulua eta EAeko bi esperientzia praktiko berariazko–, guztiak ere, zein bere ikuspegiarekin, hazkunde inklusiboaren inguruan. Lehen blokean, gizarte garatuetan ongizate ekonomikoa eta soziala neurtzeko zailtasunak dira aztergaiak, eta hainbat aukera metodologiko proposatzen dira, horiek neurtzeko garaian ongizateko alderdi gakoak aintzat hartzeko; esaterako, ingurumen-jasangarritasuna eta pertsona arteko desparekotasunak. Hori eginez gero, «garapen soziala» delakoari buruzko adierazle osoagoak eraiki ahal izango genituzke. Bigarren blokean, hazkunde ekonomikoaren eta horren banaketaren, eta gizarte-ongizatearen arteko harreman gorabeheratsua da eztabaidagaia, eta, horien arteko harreman makroekonomikoa aztertzei hasita, produktibitatearen eta soldata-desberdintasunen eta diru-sarreraren desberdintasunen eraginaren azterketan sakontzen da, baita aberastasunaren garrantziaren azterketan ere, azken hamarkadetan gizarte-talde jakin batzuk aberastasuna gero eta modu bidegabeagoan pilatzen ari dira eta.

Alea zabaltzen duen lanean, **Antonio Villarrek** gizarte-ongizatearen balorazioari eta horren eta banakoaren onuraren kontzeptu ekonomikoaren arteko harremanari buruzko literatura aztertu du, horietan oinarritzen baitira ongizatea neur-

tzeko kontzeptu teoriko gako zenbait, adibidez, gizarte-ongizatearen funtzioak. Hala, aipatu funtzioa balorazio indibidualetan oinarrituta eraikitze goraian agertzen diren zailtasunak aletzen ditu egileak, eta kontuan hartzen du, orobat, zer aukera sorta zabal-tzen den gizarte-ebaluazioko funtzio bat zuzenean alternatiba sozialen multzo baten gainean zehazten denean. Bi kontzeptu horietan bermatua, lau aplikazio enpiriko interesgarri aurkezten ditu, aukera ematen dutenak banaketaren azterketan (desberdintasuna eta pobrezia) eta langabeziaren balorazio sozialean edo giza garapenaren indizeetan sakontzeko.

Lehen blokeko ondorengo bi artikuluetan lantzen da zer-nola hobetu daitezkeen ekonomia- eta gizarte-garapenaren adierazle ohikoak ingurumen-jasangarritasuna txertatzearen esparruan eta toki-inguruneekiko harremanaren egokitzapenean. Lehenak, **Éloi Laurentenak**, ingurumen-jasangarritasuna giza garapenaren neurketan sartzea proposatzen du, eta hiru politika sozioekologiko gako aipatzen ditu, garatzeko. Egilearen iritzian, hazkunde ekonomikoa, egiatan, ezin da izan gizarte-politikaren ardatza, eta krisi ekologikoak gizateria eta planetako baliabideak mehatxatzen dituzten arrisku sozial bat direnez, gizatalde ahulentzat nagusiki, babes-politika kolektiboak beharrezkoak dira. Beraz, trantsizio ekologikoak nahitaez eskatzen du, hein batean, hiru politika gako ezartzeko: ingurumen-zerga progresiboak, aberastunaren eta karbono-aztarnaren arabera; trantsizioa finantzatzea, gastu soziala mu-rriztuta eta asmo handiko ingurumen-politikekin; eta, azkenik, babes sozioekolo-giko sendoa eraikitzea, eta hori finantzatzeko, printzipioz, erregai fosiletarako dirulaguntza gehiagorik ez ematea.

Bigarren artikulua **Jon Olaskoagak**, **Ana Fernández-ek** eta **Auxkin Galarragak** idatzi dute, eta indize konposatu bat proposatzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien gizarte-ongizatea neurtzeko. Erabilitako metrikagatik, zeharkako konparazioak egin daitezke udalerrien artean, baita konparazioak denboran zehar ere. Proposamen horrekin, egileek EAEko herritarrak bizi diren udalerriko ongizate-mailaren arabera sailkatzen dituzte, eta ondorioztatzen dute, krisiaren eraginak gorabehera, EAEko ongizate-mailak gora egin duela 2001 eta 2020 urteen artean, eta modu bertsuan EAEko udalerrietan.

Adierazleek barne hartu behar dituzten aldagaietako bat da zein den ongizatearen dimentsioen banaketa lurralde bateko herritarren artean, beraz, funtsezkoa da pobrezia eta desparekotasunei buruzko indizeak sartzea gure ebaluazioetan. Horrekin bat, bloke honetako laugarren lanak, **Joseba Zalakain** egile denak, gizarte-inklusioko eta hazkundeak EAEn izan duen bilakaera du aztergai. Egileak diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusioko EAEko sistemaren ezaugarri nagusiak deskribatzen ditu, irismenari eta emaitzei erreparatuta, eta hazkunde ekonomikoaren, ekoizpen-ereduaren eta desparekotasunaren arteko harremana aztertzen du. Emaitzetan azpimarratzen duenaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko EAEko eredu gai izan da pobrezia eta desparekotasunaren hazkundera moteltzeko,

EAEko ekonomiaren lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna kolokan jarri gabe eta beharrean dagoen jendea dei-efekturik eragin gabe.

Jakin badakigu aberastasuna eta diru-sarrerak modu gero eta desorekatuagoan banatu direla joan den mendeko 80etatik aurrera, beraz, bigarren blokean, herrialde aberatsetako hazkunde ekonomikoaren eta horren banaketaren, eta gizarte-ongizatearen arteko harreman ezegonkorra izan da aztergaia, azken hamarkada horiek kontuan hartuta. Zehazki, hauek azertu dira: kausak azaltzen dituzten teoriak, horien ondorioak produktibitatearen eta soldata-desparekotasunaren bilakaeran eta belaunaldien arteko aberastasun-arrakalak, gero eta modu bidegabeagoan pilatzen denez aberastasuna.

Bigarren blokeko lehen lanak, **Lidia Brun** eta **Ignacio González** egile direla, gaia aurkezten du, hazkunde ekonomikoa eta desparekotasuna lotzen dituzten teoriak eta horien ondorio politikoak aztertuz. Bereziko garrantzia du desparekotasunen hazkundearen zergatien gaineko eztabaida akademiko bizia eta narratiba alternatiboen eragin handiak kontuan hartzeak. Narratiba batzuek izaera teknologikoko mekanismoetan egin dute azpimarra, desparekotasunak azaltzeko; beste batzuek, aldiz, faktore instituzionalak aipatzen dituzte, esaterako, merkatu-erregulazioa edo zergak, desparekotasunaren azterketaren izaera politikoa nabarmenduz. Egileek horiek guztiak aztertzen dituzte hazkundearen eta desparekotasunaren arteko harremanari buruzko teoriaren esparruan, pentsamendu ekonomikoaren historian, eta errenta-banaketa errotik berregituratzeko bideari irmo heltzea premiazkoa dela ohartarazten dute.

Azken bi hamarkadetan, Espainian izan da soldata-desparekotasunaren hazkunde handienetako bat; laneko produktibitatearen hobekuntza murrizta izan liteke diru-sarreraren desparekotasunaren bultzatzaile nagusietako baten bilakaera hain txar horren faktoreetarik bat. **Raquel Sebastián**en lanak per capita errentaren, soldata-desparekotasunaren eta ongizatearen arteko harremana azertu du Europako 30 herrialdetan 2004-2019 aldian. Eraitzen arabera, per capita errenta altueneko Europako herrialdeetan handitu da gehien ongizatea aldi horretan, eta horietako produktibitate-mailak lotura oso handia dute batez besteko soldata-mailarekin. Egileak behatutakoaren arabera, Espainiaren eta inguruko herrialdeen artean produktibitatean dauden aldeak iraunkorrak dira. Horren arrazoia da, aldi horretan, batez besteko soldataren igoera soldata-desparekotasun handiagorekin konpentsatu dela, eta, ondorioz, inguruko herrialde garatuagoen laneko produktibitate oso urrun dagoela Espainiakoa.

Soldaten bilakaeraz gain, familien ongizate ekonomikoa baldintzatzen duten diru-sarrerek beste iturri batzuk barne hartzen dituzte, esaterako, kapital-errentak edo transferentzia publiko handiak, tartean, pentsioak edo langabezia-prestazioak. **Luis Ayala** eta **Olga Cantó** egile diren lanak hazkunde ekonomikoaren eta Espainiako familien errenta erabilgarriaren banaketaren arteko harremana azertu du azken mende erdiari erreparatuta, eta, bereziki, 2008ko krisiak klase sozialaren arabera

naketa-egituran eragindako aldaketa handiei. Gizarte-egoera ahuleko taldeak ere sakon aztertu dituzte egileek, eta egiaztatu dute pobrezia ekonomikoaren kronikotasuna handitu egin dela, eta hori izango dela etorkizuneko aukera-desparekotasunaren baldintzatzaile nagusietarik bat.

Bigarren blokeko hurrengo lana mundu-ikuspegiarekin ondu du **Marc Morganek**; World Inequality Labek 2022ko World Inequality Reporten aztertu du diru-sarreraren eta aberastasunaren banaketaren bilakaera, eta horren emaitza nagusiak laburbildu dizkigu. Analisi-metodologian diru-sarreraren gaineko datu mikroekonomikoak (inkestak, zerga-datuak) eta datu makroekonomikoak (estatu-kontuak) uztartu dira, eta ondorioztatu du herrialde aberatsetan hazkundera geldotu den arren, aberastasun pribatuaren pilaketak nabarmen egin duela gora, aberastasun publikoaren kaltetan. Egileak banaketa aurreko politiken garrantzia azpimarratu du, eta aberastasun-banaketa hobetzeko premia ere bai, desparekotasuna murriztuko bada, finantza-krisiaren eta pandemiaren ondorioz are handiagoa izango da eta. Gainera, dioenez, funtsezkoa da herrialdeen informazio-iturriak harmonizatzea, hazkunde makroekonomikoarekin koherenteak diren banaketa-zenbatespen ofizialak eskaini ditzaten.

Blokea amaitzeko, **Miguel Artolak** adin-tarteen arteko ongizate ekonomikoko arrakala gero eta handiagoa azaltzen duten mekanismo nagusiak aztertu ditu. Emaitzen arabera, lan-merkatuaren aldaketek agerian uzten dute langile gazteak posizio gero eta okerragoan daudela, kualifikazio handieneko taldeen ordainsari-mailak jaitسي direlako, kontratazio mota berriak sortu direlako (aldi baterako kontratuak eta norbere konturako lana) eta langabeziagatik. Belaunaldiarteko aberastasun-desparekotasunak ere handitu egin direla azpimarratzen du egileak, ez soilik transmisio-kanal agerikoenaren bidez (aurrezkia), baizik baita kapital-irabaziek gehiegizko onura ekarri dietelako belaunaldi urtetsuenei ere. Amaitzeko, etorkizuneko egoera zenbait aztertzen ditu, eta, orobat, oinordetzen ondoriozko aberastasun-transferentziek dagoen urtetan izan ditzaketen eraginak.

Monografikoaren azken bi artikuluek, Enpresaren Partaidetzazko Eredu Inkusiboaren (MIPE) kontzeptutik abiatuta, Euskadiraiko berariazko bi praktika aurkezten eta garatzen dituzte, enpresa partaidetzapekoari eta lankidetzaren ekonomiari dagokienez. Lehenengoak, **José Luis Jiménez Break** idatzitakoa, mende honetan beharrezkoak diren trantsizioen erronken esparruan enpresan balioa sortzea eta banatzea binomioari heltzen dio. Eredu horretan, lehiakortasunak eta enpresa-balioa sortzeak pertsonen ezagutza eta sormena aplikatu behar dute, eta kudeaketan eta kapitalean parte hartzen duen proiektu partekatatu baten emaitza izan behar dute. Horrek esan nahi du kontrolean eta kalitatean oinarritutako enpresa kudeatzeko eredu batetik sormenean eta parte-hartzean oinarritutako beste eredu batera aldatu behar dela. Adibide gisa, Debagoiena eskualdearen kasua aurkezten da Gipuzkoan, enpresa kooperatiboen presentzia handiarekin, non balio gehiago sortzea eta errenta banaketa bidezkoagoa lortzen den.

Bestalde, **Juan Manuel Sinde**, **Carlos García de Andoin**, **Javier Retegui** eta **Jon Emaldiren** azken lanak aurrekariak, esperientzia, edukia eta garapenak kontatzen ditu, eta Enpresaren Eredu Inklusibo Parte-hartzailearen (MIPE) proposamenari buruzko gogoeta batzuk aurkezten ditu. Hezkuntza- eta enpresa-lankidetzarako tradizio sozioekonomikoaren proposamen horren abiapuntua da lankidetzak gaitasuna eta ibilbidea duela ekonomia-, hezkuntza- eta enpresa-praktika berriak piztu ahal izateko, kooperatiben sozietate-formulatik haratago doazenak.

ERREFERENTZIAK

- DIENER, E. (1984): «Subjective well-being». *Psychological Bulletin*. 95 (3): 542–575. doi:10.1037/0033-2909.95.3.542.
- MORRIS, M. (1978): «A physical quality of life index». *Urban Ecology*. Vol. 3, No. 3 (November.): 225- 240.
- (1979): *Measuring the Condition of the World's Poor: the Physical Quality of Life Index*. New York: Pergamon Press for the Overseas Development Council.
- NORDHAUS, W.; TOBIN, J. (1972): «Is Growth Obsolete?». *Economic Growth*, Fiftieth Anniversary Colloquium V, National Bureau of Economic Research, New York.
- OSBERG, L.; SHARPE, A. (2002): «An index of economic well-being for selected OECD countries». *Review of Income and Wealth* 48(3), 291-316.
- STIGLITZ, J.; SEN, A.; FITOUSSI, J.P. (2009): «Report by the Commission on the Measurement of Economic Performance and Social Progress» www.stiglitz-sen-fitoussi.fr
- UNDP (1990): *Human Development Report 1990: Concept and Measurement of Human Development*. New York.